



## **Donostiako 48 entitatek eman dute izena jada Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko**

### **Entitateentzako izen-ematea zabalik dago irailaren 27ra arte**

Duela bi urteko Euskaraldiari jarraipena emanez, 2020an ere Euskaraldiaren bigarren ariketa antolatuko da azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Hamabost egun iraungo duen ariketan beste urrats bat egin nahi da: hau da, norbanakoek ez ezik entitateek ere parte hartzea lortu nahi da, hizkuntza praktika berriak bultzatzen jarraitzeko neurriak hartuz.

Bigarren edizioaren berrikuntza entitateetan datza, beraien barruan ariguneak identifikatu eta sortzea eskatuko baitzaie. Ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak dira, entitate baten barruan dagoeneko eratuta dauden hiztun taldeak edo espazioak. Arigune bat sortu ahal izateko, ezinbestekoa izango da bertako kide guztiek euskara ulertzea eta gehien-gehienak ariketa egiteko prest egotea. Arigune horiek, beraz, kideen adostasunez osatzen dira eta bertan parte hartuko dute *ahobizi* edo *belarriprestek*.

### **Donostian 48 entitatek eman dute izena dagoeneko**

Donostian ondoko 48 entitatek Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko izena eman dute:

AEG ikastetxea / AEK/ Alokabide/Aieteko Euskara Batzordea/ Aitor Ikastola/ Amara Berri AEK/ Añorga Kultur eta Kirol Elkarte/ Arantzazuko Ama ikastola/ Bagera elkarte/ Bai&by / Bankoa / Berritsu Amara Berriko Euskara Elkarte / Bideberri BHI/ Bizarrain Euskara Elkarte/ Cebanc/ Daiteke Gizarte Aholkularitza/Donostiako Berritzegunea/ Donostiako Hedabideak/ Donostiako Udala/ Ekintza ikastola/ Elizaran ikastetxea/ Erribertxo/ Euskadiko Kanoe Federakuntza/ Euskal Herriko Ikastolak Kop. Elk./ Gipuzkoako Foru Aldundia/ Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte/ Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa/ Herri Ametsa ikastola/ Herria taberna/ Hurkoa Fundazioa/ Jesuitak

ikastetxea/Jesuitinak ikastetxea/ Kaiku koorporazioa / Kresala Zinekluba/ Kristatu Eskola/ Kutxa Fundazioa/ La Asuncion ikastetxea/ La Bretxa/ Laboral Kutxa / Lauaizeta ikastola BHI/ Maria Reina Eskola/ Mintzanet/ Plazara Goaz/ Rekalde 21 Corporación / Tecnalia/ Ulialde Kultur eta Gastronomía Elkarte / Usandizaga-Peñaflorida BHI / eta Zurriola ikastola.

Entitate horiek guztiek ariguneren bat behintzat sortu dute. Ariguneak hizkuntza ohiturak aldatu eta finkatzeko egokiak izatea da helburua. Bi motatakoak izan daitezke:

-Barne ariguneak: Ohiko funtzionamendurako taldeak dira ( sailak, zerbitzuak, kirol taldeak, lantaldeak, batzarrak, eta abar) eta bertako kide guztiek euskaraz ulertzeaz gain, kideen %80 gutxienez ahobizi edo belarriprest modura ariketan parte hartzeko prest dago.

-Kanpo ariguneak: entitateetan herritarrekiko harreman espazioetan ( harreran, telefonoan, kutxetan, mostradorean, eta abar) dauden pertsonen herritarrekin osatutakoa da. Espazio horretan beti egongo da belarriprest edo ahobizi den kide bat, gutxienez, herritarren hizkuntza aukera bermatzeko.

Entitateek izena eman ahal izango dute irailaren 27ra arte <https://donostia.euskaraldia.eus/> webean. Donostiako Euskaraldiaren talde motorrak ( Bagera eta Donostiako Udala) dei egiten die hiriko entitateei izena eman eta Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzera.

Edozein informazio behar izanez gero:

Emaila: [donostia@euskaraldia.eus](mailto:donostia@euskaraldia.eus)

Telefonoa: 688717074/ @euskaraldia